

## PRESIDENTEA

Josu Artetxe

## AIARAKO UDALAK 2014ko UZTAILAREN 17an EGINIKO OHIKO BILERAREN AKTA.

## ZINEGOTZIAK

Lauren Uria

Esteban Hernando

Aitziber Alava

Garbiñe Alaña

Julio Etxaurren

Esmeralda Martínez

José Antonio Bartolomé

Iratxe Parro

Iraida Saenz de Lafuente

José Luis Pedruzo

Arespalditzan, udaletxeko bilkuren aretoan, bi mila eta hamalauko uztailaren hamazazpian, hemeretziak direnean, Udalbatza Osoa bildu da ohiko bilera egiteko. Josu Artetxe Arana alkate jauna da burua eta albo batean adierazitako zinegotziak bertaratu dira, behar bezala deituta, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluan xedaturikoaren arabera. Neuk, Jurdana Uriarte Lejarraga idazkari andreak, lagundu ditut eta ekitaldiaren fede eman dut.

Jarraian, Eguneko Aztergaien Zerrendan dauden gaiak jorratu dira.

## IDAZKARIA

Naiara Lazpita

Alkate jaunak arratsalde on esan eta Udalbatzara ongi etorria eman die guztiei.

Ondoren, Eguneko Aztergaien Zerrendan gaineratutako puntuak jorratu dira.

### **1.- Onestea, bidezkoa bada, 2014ko ekainaren 19an eginiko ohiko bilkuraren akta.**

Horren inguruko beste adierazpenik egin ez denez, bertaratutako korporazioko kideek aho batez onetsi dute akta.

### **2.- Onestea, bidezkoa bada, Aiarako Udalaren eta Etxaurren Ikastolako Gurasoen Elkartearen arteko lankidetzaz hitzarmena, Etxaurren ikastolako laguntza psikopedagogikoko zerbitzua eta bi urteko gelaren (laguntzailea) zerbitzua finantzatzeko.**

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatza Osoko kideek aho batez onetsi dute.

Eta hori dela bide

**IKUSI DA.-** Udalaren interesa da IGERi laguntza ematea, bere gizarte-hezkuntzako jardueran, Etxaurren ikastolan egiten den hezkuntza-lana osatu, hobetu eta zabaltze aldera.

**IKUSI DA.-** IGERen zeregin nagusietako bat da laguntza psikopedagogikoko zerbitzua eta bi urteko gelaren zerbitzua bermatzea.

**IKUSI DA.-** Aiarako Udalaren eta Etxaurreko Ikastolako Guraso Elkartearen arteko lankidetzaz hitzarmena, 2014 ekitaldiari dagokiona.

**IKUSI DA.-** Euskara eta Hezkuntza Informazio Batzordeak 2014ko uztailaren 8an emandako aldeko irizpena.

**AINTZAT HARTU DA.-** Hitzarmen honek Aiarako Udalak Etxaurren Ikastolako Guraso Elkarteari zuzenean emandako diru-laguntza bat araupetzen du. Bestalde, udal-aurrekontuan bi partida izendun daude, kreditu nahikoarekin eta egokiarekin, hitzarmen hau sinatzeak Udalari dakarkion gastuari aurre egiteko.

Udalbatza Osoak aho batez **ERABAKI DU:**

**Lehenengoa.-** Onestea Aiarako Udalaren eta Etxaurren Ikastolako Gurasoen Elkartearen arteko lankidetzeta-hitzarmena (2014 ekitaldia), gizarte-hezkuntzako lana bultzatzeko, laguntza psikopedagogikoko zerbitzua eta bi urteko gelaren zerbitzua (laguntzailea) bermatuz.

**Bigarrena.-** Alkate-udalburuari ahalmena ematea, hitzarmena sina dezan.

**Hirugarrena.-** Hitzarmena sinatu ondoren, **Etxaurren Ikastolako Guraso Elkarteari** jakinaraztea, hitzarmenaren bi kopia erantsita, aleetako bat sinatu ondoren Udalari itzultzeko.

**3.- Onestea, bidezkoa bada, Luiaondoko erabilera anitzeko eraikina zaharberritzeko proiektuaren eranskina. A. L. andreak aurkeztu zuen 2014ko martxoaren 18an (BFaren foru-planeko teknikariek eskatu zuten). Bestalde, onestea, bidezkoa bada, D. P. jaunak aurkeztutako proiektu aldatua (egindako proiektuaren berrikuspena).**

Iratxe andreak (AB) honako idazki hau irakurri du:

*“Aiara Batuzen pozik gaude, gobernu-talde honek onetsi egin zuelako, gure proposamenaren ondoren, obra-zuzendaritza idazlea ez den beste bati esleitzea.*

*Gure taldeak zuzendaritza esleitzeko pleguen aurka bozkatu zuen; izan ere, uste genuen pleguetan ez zela argi adierazten zein zen esleipenaren helburua, hots, proiektua osorik berrikustea. Ezin diogu geure buruari iruzur egin: proiektua txarto zegoen, eta hori frogatu da egindako berrikuspenean.*

*Gaur obraren lizitazio publikoa araupetuko duten klausula ekonomiko-administratibo berezien pleguei buruzko bozketa egin da. 923.276,06 €-ko proiektua da, A. andreaken esku egon zena urtebetez. 60 egun baino gutxiago behar izan ditu D. P. jaunak berrikusteko eta joan den astelehenean aurkeztu zaio batzordeari.*

*Bada, uste dugu gaur bozkatzera derrigorlortuta gaudelako, obra berehala egitea beharrezkoa delako, epea exekutatzeko aldera. Gure ustez, hori guztia prozesu osoaren planifikazio txarraren ondorio da. Gaur onestea bozkatzeko dugu, Luiaondoko bizilagunei plangintza berriaren berri eman gabe. Gure ustez, akats izugarria da.*

*Dena den, gaur bozkatu behar dugunez gero, gustatuko litzaikeekin sakontasunarekin aztertzeak aukerarik izan gabe, berriz ere diot, osorik berrikusitako proiektua dela eta, lan arretatsua egin dela.*

*Bere sasoian hitzeman genuen... Aiara Batuzek Aiarako bizilagunei igorritako aldizkarian argitaratu duena irakurriko dizuet: “gaur egun eginbidean dagoen proiektu-berrikuspenarekin zuzendu egiten badira proiektuari berari dagozkin gabeziak zein aurrekontuei dagozkienak, Aiara Batuz prest agertuko da Patxita etxea zaharberritzearen alde egiteko. Izan ere, uste dugu beharrian larria dela Luiaondok anbulatorio berri bat izatea, egungo biztanleriaren beharrianen arabera neurriak dituen.”*

*Hori dela eta, Aiara Batuzek David Pinedo jaunak aurkeztutako zaharberritzearen alde bozkatzeko du.”*

Jarraian, gaiari buruzko bozketa egin da, eta honako hau izan da bozketaren emaitza:

ABSTENTZIOA, ebazpenaren lehenengo punturako: 3 (1 PP eta 2 AB)

Ebazpenaren testu osoa onesteko ALDEKO BOTOAK: 8 (4 BILDU, 4 EAJ)

Ebazpenaren bigarren puntua onesteko ALDEKO BOTOAK: 3 (1 PP, 2 AB)

Eta hori dela bide

**IKUSI DA.-** 2012ko apirilaren 23ko ohiko osoko bilkuran onetsi zen Arabako Foru Aldundiko Obrak eta Zerbitzuak Foru Planaren (2012-2015) programan sartzeko eskaera, "Luiaondo udalerriko 3. poligonoko 1.333 lursaileko erabilera anitzeko eraikina zaharberritzea" obra egiteko.

**IKUSI DA.-** Udalbatza Osoak 2013ko urriaren 29an onetsi zuen aipatutako obra-proiektua.

**IKUSI DA.-** 2014ko martxoaren 18an, proiektuaren idazle A. L. de S. andreak eranskin bat aurkeztu zuen, Arabako Foru Aldundiko Foru Plana zerbitzuko teknikariek eskatutako zenbait zuzenketa jasota.

**IKUSI DA.-** 2014ko apirilaren 16an, Udalbatza Osoak D. P. O. jaunari esleitu zion Luiaondoko erabilera anitzeko eraikuntza zaharberritzeko proiektua hobetzeko zerbitzua.

**IKUSI DA.-** 2014ko uztailaren 14an, obra-zuzendariak dokumentazio teknikoa aurkeztu zuen, aipatutako proiektuaren hobekuntza edo zuzenketekin.

**IKUSI DA.-** Obrak eta Zerbitzuak Informazio Batzordeak 2014ko uztailaren 14an emandako aldeko irizpena.

Udalbatza Osoak, gehiengo batez, hau **ERABAKI DU**:

**Lehenengoa.-** Onestea Luiaondoko erabilera anitzeko eraikina zaharberritzeko proiektuaren eranskina, A. L. de S. andreak 2014ko martxoaren 18an aurkeztutakoa.

**Bigarrena.-** Onestea D. P. O. jaunak 2014ko uztailan aurkeztutako exekuzio-proiektu aldatua; zehazki, Luiaondoko erabilera anitzeko eraikina zaharberritzeko proiektuaren berrikuspenari buruzkoa da, eta 923.276,06 €-ko zenbatekoa dagokio, BEZa barne.

**Hirugarrena.-** Ebazpen honen berri ematea Arabako Foru Aldundiko Obrak eta Zerbitzuak Foru Plana zerbitzuari. Agirien kopia bat erantsiko da, zerbitzu horrek oniritzia eman diezaien.

**4.- Onestea, bidezkoa bada, 2014ko aurrekontuaren kreditu gehigarria, Diruzaintzaren soberakinaren kargura. Halaber, onestea 2015 ekitaldirako kreditu-konpromisoa, "Luiaondoko erabilera anitzeko eraikina zaharberritzea" obra finantzatzeko.**

José Antonio jaunak (EAJ) esan du beldurgarria dela soberakin guztia obra horretarako gordetzea. Izan ere, gerora larrialdiren bat gerta daiteke, eta beste partida batzuetatik kendu beharko litzateke. Hori dela eta, Batzordeen partidak gordetzeko eskatu du.

Lauren jaunak (BILDU) adierazi du asmoa ez dela Batzordeetarako diru-laguntzen partidak murriztea. Irailean zirriborro bat aurkezteko ahalegina egingo da, obretarako diru-laguntzen partida banatzeko. Azaldu du partidak estu daudela, baina urte erdian dagoen gastua ikusita, ondo doazela.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatza Osoko kideek aho batez onetsi dute.

Eta hori dela bide

**IKUSI DA.-** Udal honen asmoa da Luiaondoko eraikin bat zaharberritzeko lana egitea. Proiektuaren eta horren eranskinaren arabera, 923.276,05 euro dagozkio, BEZa barne.

**IKUSI DA.-** Udalak baldintza ekonomiko-administratiboen pleguak idatzi ditu, aipatutako obra-kontratua lizitatzeko.

**IKUSI DA.-** Aipatutako obra 2014 eta 2015 ekitaldietan zehar exekutatu da, eta honako zenbateko hauek dagozkio:

- 2014an exekutatzeko obra: 309.351,92 euro (BEZa barne)
- 2015ean exekutatzeko obra: 613.924,13 euro (BEZa barne)

**IKUSI DA.-** 2014ko aurrekontuan, Kontu-hartzaitzaren txostenaren arabera, partidan ez dago kreditu nahikorik eta egokirik, aipatutako gastuari aurre egiteko. Lotura-mailan esleipen dagoen arren, beharrezkoa da partidako kreditua handitzea, gainerako inbertsio lotuak arriskuan ez jartzeko.

**AINTZAT HARTU DA.-** Honako hauetan xedatutakoa: Araba lurralde historikoko tokiko erakundeen aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Araua, Sektore publikoko kontratuei buruzko Legearen testu bateratua onesten duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua eta Tokiko araubidearen oinarriak araupetzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea.

Udalbatza Osoak, aho batez, hau **ERABAKI DU**:

**Lehenengoa.-** Onestea ondoren zehaztutako kreditu gehigarria:

PARTIDA	IZENDAPENA	ZENBATEKOA
432.601.000	Luiaondoko eraikinerako erabilera	212.530,72 €
	GUZTIRA:	212.530,72 €

Zenbateko hori ondoren zerrendatzen diren baliabideekin finantzatu da; beraz, espedientea orekatuta dago eta ez da defizitik sortzen:

DIRU SARREREN PARTIDA	IZENDAPENA	ZENBATEKOA
	Diruzaintzako soberakina,	

432.601.000	gastu orokorretarako	212.530,72 €
-------------	----------------------	--------------

Onetsitako kreditu gehigarrien zenbateko osoa finantzatzeko erabiltzen diren diru-sarrera guztien parekoa da.

**Bigarrena.-** Kontu-hartzaitzak aldaketak egin ditzala aurrekontuaren gastu-egoeran, eta aldaketon eragina berehalakoa izan dadin.

**Hirugarrena.-** Onestea 2015eko etorkizuneko ekitaldian finantzatzeko kredituen erreserba-konpromisoa, Luiaondoko erabilera anitzeko eraikina zaharberritzeko obren kontratua gauzatzeko.

ETORKIZUNeko EKITALDIA	KREDITU ERRESERBA
2015	613.924,13 €

**Laugarrena.-** Gastu orokorretarako Diruzaintzaren soberakina atxikitzea. Guztira 276.167,73 € dira eta Luiaondoko erabilera anitzeko eraikina zaharberritzeko obrari atxikiko zaio. Bada, atxikipen hori indargabetzeko aukera egongo da, beste organismo batzuek lan horietarako diru-laguntzak ematen dituzten heinean, betiere obraren exekuzio-kontratuaren ekonomia- eta aurrekontu-oreka mantentzen bada.

**5.- Onestea, bidezkoa bada, Luiaondoko erabilera anitzeko eraikina (Aiara/Ayala udalerrria) zaharberritzeko obren exekuzioa premiazko prozedura irekiaren bidez esleitzeko lizitazio publikoa araupetuko duten klausula ekonomiko-administratibo berezien pleguak.**

Idazkariak azaldu du Foru Planaz arduratzen den sailak oraindik ez diola oniritzia eman proiektuari; beraz, arduradunarekin adostu da proiektua gutxienez ahoz onetsi arte itxarotea, pleguak ALHAOra bidaltzeko. Alabaina, onestea komeni da, gerora beste bilkura bat deitu behar ez izateko.

Iratxe andreak (AB) esan du memoria teknikoko balorazio-irizpideetara hobekuntzen atal berri bat gehitzea proposatu nahi dutela, udalerriko langabeak kontratatzen dituzten enpresei puntuak emateko; zehazki, 5 puntu emateko. Bestalde, koordinazio-irizpideari eman zitzaizkion 10 puntuen ordez, 5 puntu emateko eskatu du. Halaber, azken irizpide horri izena aldatzea nahi du, "Koordinazio Plan" deitzea, enpresa guztiek gauza bera uler dezaten.

Langabetuak kontratatzeagatik hobekuntza-irizpidearen kariatara, idazkariak proposatu du langabetuak egingo dituen lanegunen kopuruaren arabera puntuatzea, zenbatzea errazago izan dadin.

Komentatu da pleguetan jaso behar dela enpresek derrigor aplikatu behar izatea dagozkien probintzietako hitzarmen kolektiboak.

Idazkariak esan du gehitu egingo duela.

Eta hori dela bide

**IKUSI DA.-** A. L. andreak “Luiaondoko erabilera anitzeko eraikina zaharberritzea” lanerako idatzitako proiektu teknikoa eta eranskina. 2014ko martxoan aurkeztu zituen.

**IKUSI DA.-** D. P. obra-zuzendari jaunak aurkeztutako eranskina, proiektuaren berrikuspenari dagokiona.

**IKUSI DA.-** Luiaondoko erabilera anitzeko eraikina (Aiara/Ayala udalerria) zaharberritzeko obren exekuzioa premiazko prozedura irekiaren bidez esleitzeko lizitazio publikoa araupetuko duten klausula ekonomiko-administratibo berezien plegua.

**IKUSI DA.-** Kontu-hartzaitzak 2014ko uztailaren 10ean eginiko txostena.

**AINTZAT HARTU DA.-** 432.601.000 partidaren kreditu nahiko eta egokia dagoela, kontratu hori 2014an esleitzeak ekar ditzakeen gastuei aurre egiteko. Halaber, ikusi da Korporazioak 2015erako onetsitako kreditu-erreserba.

**AINTZAT HARTU DA.-** Beharrezkoa da prozedura bizkortzea, interes publikoko arrazoiak direla eta.

**AINTZAT HARTU DA.-** Obraren zenbatekoa dela eta, kontratazio-prozedura irekia da.

**AINTZAT HARTU DA.-** Sektore publikoko kontratuei buruzko Legearen testu bateratua onesten duen abenduaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuan xedatutakoa.

**AINTZAT HARTU DA.-** Tokiko araubidearen oinarriak araupetzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 21. artikuluan xedatutakoa.

Udalbatza Osoak, aho batez, hau **ERABAKI DU**:

**Lehenengoa.-** Kontratazio-espedientearen izapidetzea premiazkoztat jotzea.

**Bigarrena.-** Obra kontratatzeke administrazio-espedientea abiaraztea, prozedura irekiaren bidez.

**Hirugarrena.-** Onestea aipatutako kontratua araupetu behar duten klausula ekonomiko-administratibo berezien plegua.

**Laugarrena.-** Lizitazio-iragarkia argitaratzea ALHAOn eta Aiarako Udalaren kontratatzailearen profilean, pleguan ezarritako epean eta moduan, hala nahi duenak bere lizitazio-eskaintza aurkez dezan.

**Bosgarrena.-** 923.276,05 €-ko zenbatekoa onestea, aipatutako kontratazioak Udal honi dakarkion gastu gisa. Horietatik 309.351,92 € 2014. urteari dagozkio eta 432.601.000 partidaren kargura ordainduko dira. Gainerakoak, korporazioak 2015. urterako onetsitako konpromiso-kredituaren kargura ordainduko dira.

**6.- Prozedura arrunteko 233/2014-B AAHn demandatu gisa bertaratzea. Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernu Ordezkaritzak aurkeztu du, Udalbatza Osoak 2014-05-12an**

**emandako ebazpenaren aurka. Horren bidez, Udaleko lanpostuen balorazio berria eta LZn egin beharreko aldaketak onetsi ziren.**

Josu jaunak (BILDU) esan du harritu xamar proposatu dela auzian bertaratzea. Izan ere, José Luisekin hitz egin da, C. U. jaunarekin hitz egiterik zuen galdetzeko; baina, azken horrek esan du legeak bete egin behar direla.

Josu jaunak hitz egiten jarraitu du, esanez bere ustez legeak bete egiten direla. Gobernu Ordezkaritzara gutun bat bidaltzea proposatu du, bertan azaltzeko euren ustez legeak bete egiten direla. Kontu-hartzailtetzak LZri buruz eginiko txostena erants daiteke, **esanez zentzurik gabeko auzi batera bertaratzera behartzen gaituela.**

Udalbatzako kide guztiek ebatzi dute idazki hori igortzea Gobernu Ordezkaritzari eta auzian bertaratzea.

Eta hori dela bide

**IKUSI DA.-** Gobernu Ordezkaritzak Udalbatza Osoaren 2014-05-12ko ebazpenaren aurka aurkeztutako administrazioarekiko auzi-helegitea. Ebazpen horren bidez, Horren bidez, Udaleko lanpostuen balorazio berria eta LZn egin beharreko aldaketak onetsi ziren.

**GINARRIAN DAGO.-** Udal honek beharrezko ekintzak gauzatu behar ditu, bere ondasun eta eskubideak baliatuz.

**GINARRIAN DAGO.-** Administrazio- eta lege-ekintzak gauzatzea Udalbatza Osoari dagokio.

**GINARRIAN DAGO.-** Administrazio-espeditentea igortzeko eskatu da.

**AINZAT HARTU DA.-** Tokiko araubidearen oinarriak arautzen dituen Legearen 21., 22. eta 68.1. artikuluetan eta bat datozen gainerako betekizunetan aurreikusitakoari jarraiki,

Korporazioak 2014ko uztailaren 17an egindako osoko bilkuran, aho batez **ERABAKI DU:**

**LEHENENGOA.-** Gobernu Ordezkaritzak Udalbatza Osoaren 2014-05-12ko ebazpenaren aurka aurkeztutako administrazioarekiko auzi-helegitean demandatu gisa bertaratzea. Ebazpen horren bidez, Horren bidez, Udaleko lanpostuen balorazio berria eta LZn egin beharreko aldaketak onetsi ziren.

**BIGARRENA.-** Udalbatzaren ordezkariak honako prokuradore hauen esku uztea, prozedura honetan:

Gasteizkoak: R. de A. Q. O. de Z. andrea eta C. M. A. andrea. Bilbokoak: A. A. A. jauna eta L. Z. S. andrea. Madrilgoak: E. de A. V. eta I. F.-C. B. andrea.

**HIRUGARRENA.-** Udal honen interesen babesa EKAIN aholkularitza juridikoko honako abokatu hauen esku uztea, administrazioarekiko auzi-helegite honetan: J. L. M. jauna, L. U. U. jauna, J. A. L. jauna, N. M. R. andrea eta M. L. de A. R. de A. andrea.

**LAUGARRENA.-** Administrazio-espeditentea igortzea Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko 1. Auzi Epaitegira.

## **7.- Honako hauen berri ematea:**

- **2012ko martxoko, apirileko eta maiatzeko kontaketa-aktak.**
- **Gastu eta diru-sarreraren balantzea.**
- **2014ko martxoko, apirileko eta maiatzeko kartilen egoera.**
- **2014ko martxoko, apirileko eta maiatzeko kreditu-aldaketak.**

Korporazioko kideak jakinaren gainean gelditu dira.

## **8.- Alkatetza-dekretuak:**

- **Erref.- 243/14.- Tramame, SA. Onartzea ondoz ondoko 7. isunari dagokion zerga-betebeharra lau epetan zatitzeko eskaera.**
- **Erref.- 244/14.- PVI.** Onestea ordaindutako ibilgailuen gaineko udal-zergaren (2014) zati proportzionala itzultzea, turismoari behin betiko baja eman zaiolako.
- **Erref.: 245/14.- FJCG.** % 25eko hobaria ematea 2014ko TMZn, kide anitzeko familiako kide izateagatik.
- **Erref.- 246/14.- AJEB.-** Fidantza eskatzea, Llantenon dagoen etxolaren estalkia zaharberritzeko obren hondakinak egoki kudeatzen direla bermatzeko.
- **Erref.- 247/14.-** Onestea Aiarako Udalak 2014. urtean kulturaren, kirolaren eta gizartearen esparruetarako diru-laguntzak ematea araupetzen duten oinarriak.
- **Erref.- 248/14.- Rvdas. Madres Dominicas de Santo Domingo.-** Obra-lizentziaren espedienteari buruzko agiri gehiago eskatzea.
- **Erref.- 249/14.- Padura, 35 (Luiaondo) helbideko jabekideen komunitatea.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, bi terraza konpontzeko, bistako piezako aldatzeko eta fatxada pintatzeko.
- **Erref.- 250/14.-** Aldagelen moduluak hornitzeko kontratua esleitzea Alquiabalat, SLri.
- **Erref.- 251/14.- Agiñagako Administrazio Batza.-** Fidantza eskatzea, Agiñagan egingo diren obren hondakinak egoki kudeatuko direla bermatzeko.
- **Erref.- 252/14.- Arespalditzako Administrazio Batza.-** Luzapena ematea, Arespalditzako eraikin bat berreraikitze lanak hasteko.
- **Erref.- 253/14.- MAAG.-** Hobaria ematea Hiriko OHZn (2014), ordenantza fiskalean ezarritako baldintzak betetzen direlako.
- **Erref.- 254/14.- EMH eta MCGB.-** Hobaria ematea Hiriko OHZn (2014), ordenantza fiskalean ezarritako baldintzak betetzen direlako.
- **Erref.- 255/14.- CBM, WC eta VC.-** Baja-espedienteak izapidetzeko onartzea, Biztanleen Udal Erroldan behar ez bezala inskribatu izanagatik.
- **Erref.- 256/14.- AZM.-** Premiamenduzko administrazio-prozeduraren baliogabetasun-aitorpena onartzea eta Arabako Foru Aldundiaren diru-bilketa exekutiboak bahitutako zenbatekoak itzultzea.
- **Erref.: 257/14.-** Alkatearen 5/2014 kreditu gehigarriaren espedientea.
- **Erref.- 258/14.- ADSC.-** Fidantza eskatzea, Llantenon familia bakarreko bi etxebizitza lortzeko eraikin bat handitzeko obren hondakinak egoki kudeatzen direla bermatzeko.
- **Erref.- 259/14.- Retes de Llantenoko Administrazio Batza.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Retes de Llantenoko bide bat konpontzeko.
- **Erref.- 260/14.-** Onestea F/2014/6 zenbakiko fakturen kontabilitate-zerrenda.
- **Erref.- 261/14.-** Onestea Aiarako ehiza-barrutiaren aprobetxamenduaren esleipena araupetu behar duten klausula ekonomiko-administratiboen eta teknikoaren pleguak.



- **Erref.- 262/14.- Kreditu-gaikuntzari buruzko 2/2014 espedientea.**
- **Erref.: 263/14.- Alkatearen 6/2014 kreditu gehigarriaren espedientea.**
- **Erref.- 264/14.- MICA.-** Hondakinak kudeatzeagatiko fidantza itzultzeari buruzko agiri gehiago eskatzea.
- **Erref.- 265/14.- Rafael Santander Orcasitas.-** Esleitzea udal-eraikinen irisgarritasun-plana berritzeko kontratua.
- **Erref.- 266/14.- Info-Aiaraldea Kultur Elkarte.-** “Udalaren informazio-orria” egin eta banatzeko kontratua esleitzea.
- **Erref.- 267/14.- Naturgas Energía Distribución, SLU.-** Lurzorua okupatzeagatiko tasaren likidazioa (argindarra), 2014ko 2. hiruhilekoa.
- **Erref.- 268/14.- Aiarako Ehiza eta Arrantza Elkarte.-** Itzultzea Aiarako ehiza-barrutia ustiatzeko esleipenean aurkeztutako fidantza.
- **Erref.- 269/14.- Quesería Izoria, SL.-** Irekitze-lizentziari buruzko espedienteari buruzko agiri gehiago eskatzea.
- **Erref.- 270/14.- AUZ.-** Sailkatutako jardueraren alde aurreko komunikazio-espedienteari buruzko agiri gehiago eskatzea.
- **Erref.- 271/14.- Aiarako Biltokia Kultur Elkarte.-** 2013ko jardueretarako diru-laguntza murriztea eta justifikatu gabeko zenbatekoa itzultzeko prozedura hastea.
- **Erref.- 272/14.- Aiarako Saraube Hockey Kluba.-** 2013ko jardueretarako diru-laguntza murriztea eta justifikatu gabeko zenbatekoa itzultzeko prozedura hastea.
- **Erref.- 273/14.- Argazki Kluba Hontxuria.-** 2013ko jardueretarako diru-laguntza murriztea eta justifikatu gabeko zenbatekoa itzultzeko prozedura hastea.
- **Erref.- 274/14.- Luiaondoko pilota-kluba.-** Jardueretarako 2013ko diru-laguntza itzultzeko prozedura hastea.
- **Erref.- 275/14.- Garobel Meni Taldea.-** Jardueretarako 2013ko diru-laguntza itzultzeko prozedura hastea.
- **Erref.- 276/14.- Etxaurren haur-eskola.-** Jardueretarako 2013ko diru-laguntza itzultzeko prozedura hastea.
- **Erref.- 277/14.- Coral Izalde Abesbatza.-** Jardueretarako 2013ko diru-laguntza itzultzeko prozedura hastea.
- **Erref.- 278/14.- AVD.-** Jarduera-lizentziaren espedienteari buruzko agiri gehiago eskatzea.
- **Erref.- 279/14.- Agiñagako Administrazio Batza.-** Agiñagan zenbait obra egiteko udal-lizentzia ematea.
- **Erref.- 280/14.- Llanteno Administrazio Batza.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Llanteno Blanco baselizaren zati batean erreteila egiteko.
- **Erref.- 281/14.- AJEB.-** Obrarako lizentzia ematea, Llanteno etxola baten estalkia zaharberitzeko.
- **Erref.- 282/14.- AJEB.-** Neurri zuzentzaileak ezartzea laborantza-tresnen biltegia jarduerari, jardueraren alde aurreko komunikazio-prozeduran.
- **Erref.- 283/14.- EFB. La Magdalena eraikina, 2 (Luiaondo) helbideko jabekideen komunitatea.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, lorategia ixteko.
- **Erref.- 284/14.- Axpo Iberia, SL.-** 2014ko bigarren seihilekoan jabari publikoa okupatzeagatiko tasa likidatzea.
- **Erref.- 285/14.- CDPO.-** Zubiete dorrea okupatzeko udal-lizentzia ematea. Llanteno udalerrian dago.
- **Erref.- 286/14.- Alday fundazioa.-** Obra-lizentziaren espedienteari buruzko agiri gehiago eskatzea.

- **Erref.- 287/14.- ERC.-** Obra-lizentziaren espedienteari buruzko agiri gehiago eskatzea.

\* José Luis jaunak (PP), ondoz ondoko 7. isuna ordaintzeko Tramameri eman zaion zatitzea dela eta, ordaintzeko zenbat duen galdetu du.

Idazkariak azaldu du isun horiek agentzia exekutiboan daudela jada, eta eurek egiten dutela proposamena. Ondoren, agentzia exekutiboak guztia kobratzen du.

Garbiñe andreak (EAJ) esan du beharbada zatikatze eta luzatze gehiago ez ematea erabaki beharko dela.

Josu jaunak (BILDU) esan du ez dagoela arazorik.

\* José Luis jaunak (PP) galdetu du ea zer obra egingo duten Madres Dominicasen; izan ere, 248 zenbakiko Dekretuan agiri gehiago eskatzen zaizkie.

Idazkariak dekretuan irakurri du zein den lizentzia-eskaerari dagokion obra.

\* Garbiñe andreak (EAJ) galdetu du ea argitaratu diren ehiza-barrutia esleitzeko pleguak.

Idazkariak ezetz erantzun dio, igorri egingo direla.

## **9.- Norberak lekarkeena.**

Garbiñe andreak (EAJ) Padura kalearen gaiari buruz galdetu du, ea nola dagoen araztegia, ea zergatik ez dagoen martxan jada eta ea zertan dagoen herritarrei 11.000 euro gehiago eskatzeko dekretua (aurka egin zaio).

Idazkariak erantzun du hori Marisolen esku dagoela, helegite horren erantzuna prestatzeko. Txosten bat eskatu zaio obra-zuzendariari; izan ere, obraren kostua esleipena baino handiagoa izan zen. Xedea zen aparteko zenbateko hori justifikatzea, ez Udalaren nahiaren arabera, ezpada sektoreko administrazioen (nagusiki, URA) eskakizunen arabera. Ez dauka helegite horri emandako erantzunik.

- Garbiñe andreak (EAJ) galdetu du ea zertan den Padura kaleko aparkalekuen kontua.

Esteban jaunak (BILDU) erantzun du ez dagoela aurrekontu-partidarik obra horretarako; baina, batzarra egin da interesdunekin eta bidea norabide bakar batean egitea zehaztu da. Halaber, aurreikusi da erabiltzen ez den eremu berdea aparkaleku gisa gaitzea. Dena den, datorren urteko aurrekontua eduki arte itxarongo da.

Garbiñe andreak Las Vegasko aparkalekuei buruz ere galdetu du.

Esteban jaunak erantzun du ezinezkoa izan dela herritarrekin hitz egitea.

Garbiñe andreak esan du herritarrekin hitz egin baino lehen, gaia batzorde batean landu beharko dela, baratze ekologikoen gaian bezala (ez da berriz ere landu).

Josu jaunak (BILDU) esan du ez dela Hirigintza Batzorderik deitu, ez zegoelako lantzeko gai garrantzitsurik. Baratzeen kontuari dagokionez, erantzun du Administrazio Batzak beste proposamen bat egin duela eremu horretarako; zehazki, aparkalekuak gaitzea. Alabaina, jabeari galdetu zaio eta ez da proposamen horrekin ados agertu.

- Garbiñe andreak (EAJ) esan du Zubibarri zubiaren ingurua ez dela handitu.

Lauren jaunak (BILDU) erantzun du URAk azkenean ez egiteko esan zuela.

- Garbiñe andreak galdetu du ea Salvada mendizerrara sartzeko txartelak banatu diren.

Iratxe andreak (AB) erantzun du eginda daudela eta batzen joan behar dutela; izan ere, orain dela bi hilabete igorritako gutunean esaten zen Udalera joango zirela horien bila.

- Garbiñe andreak (EAJ) San Vitoren gaiari buruz galdetu du.

Iratxe andreak erantzun du oraindik ez dela jaiko ezer antolatu. Artzainekin afaria noiz egingo zain daude.

Josu jaunak (BILDU) esan du Ermandadearen batzarra dagoela eta gaia landuko dela.

- Garbiñe andreak galdetu du ea zergatik ez den gauzatu Amurrioko Udalarekin sinatutako hitzarmena, kiroldegia dagokiona.

Lauren jaunak (BILDU) erantzun du alkate andreari batzar bat eskatu zitzaiola eta orain dela gutxi egin dutela. Amurriotik esaten da kiroldegia kudeatzen duen enpresaren asmoa ados jartzea dela, kontratua araupetzen duten baldintzekin bat etorritz. Alkate andreari enpresak onartzen duen edo ez erantzuteko eskatu zaio. Hitz egiten jarraitu eta esan du zenbait proposamen egin zaizkiela eta erantzunaren zain daudela.

Garbiñe andreak (EAJ) esan du batzordean hartutako erabakiaz urtebete joan dela eta arinago eman behar zitzaiola horren berri.

- Iratxe andreak (AB) eskola-garraioari buruz galdetu du; zehazki, ea berririk dagoen eta ea Udal gisa ezer egingo den.

Josu jaunak (BILDU) erantzun du ez duela ematen Legebiltzarrean mugimendu handia egongo denik. Harreman etengabea dago ikastolako IGERekin, aipatutako gaia dela eta.

Garbiñe andreak (EAJ) adierazi du argi dagoela garraiorik ez dutenak jantokiko bekarik gabe gelditzen direla; beraz, Udalak zerbait egin beharko du, hala nola, diru-laguntza eman.

Josu jaunak esan du zerbait egitea proposa dezaketela, baina lehenengo bide guztiak agortu behar direla eta presionatu beharreko instantziak presionatu beharko direla. Gurasoei babesa ematen ari dira erabaki guztietan.

Garbiñe andreak esan du egoera berean dauden beste udal batzuekin harremanetan jar daitezkeela, zer egiten ari den ikusteko. Halaber, gurasoei azal dakieke azkenean kontua konpontzen ez bada, Udalak diru-laguntzak emango dizkiela.

Josu jaunak erantzun du azken hori dela konponbide azkarrena eta soilena: Udala arduratzea; baina, hori baloratu eta eztabaidatu egin beharko da.

Iratxe andreak adierazi du gurasoak mugitu egin direla eta euren ekintzak babestu beharko direla.

- Iratxe andreak (AB) eskatu du hemendik aurrera Patxita etxeari buruzko beste ezer onetsi behar bada, denbora nahikoz banatzeko, dagokion bezala aztertu ahal izateko.
- Iratxe andreak (AB) Lauren jaunari esan dio detailea izango zela aurreko Gizarte Ongizatea Batzordearen bilkuran gai gatazkatsu hori landuko zela ohartarazi izana. Langileen ordezkaria bere ezinegona adieraztera bertaratu zen eta Aiara Batuz izan zen horren berri izan ez zuen talde bakarra.

Lauren jaunak (BILDU) erantzun du ez duela gaiaz hitz egin nahi, langileek hori eskatu dutelako; baina, Iratxe andreak aipatutako kontu hori azaleko kontua baino ez da, gaiaren funtsarekin alderatuta.

Iratxe andreak esan du batzorde baten eragiten dien gai bat landuko bada, ondo dagoela alde aurretik horren berri izatea, taldean lantzeko.

Lauren jaunak adierazi du detailea izango zela, bere aldetik, argitaratu aurretik langileekin hitz egin izana.

Iratxe andreak erantzun du batzar bat egin dutela langileekin eta gaia konpondu dutela.

Josu jaunak (BILDU) esan du sinesgaitza dela Aiara Batuzek bere akatsa ez onartzea eta, gainera, osoko bilkurara bertaratzea gainerakoei zer egin behar duten esatera.

Iratxe andreak galdetu egin du eta gobernu-taldeak ezer kontsultatu duen erantzukizunak garbitzeari buruz, batzordearen bilkuran esan zen bezala.

Lauren jaunak erantzun du, bere ustez, hori langileen menpe dagoela. Izan ere, argitaratutakoak, nagusiki, langileei eragiten die. Zinegotzi bati kritika egiten bazaio, onartu eta bere egiten du, politikoa delako; baina, ezin da onartu kritika hori langileei egitea.

Garbiñe andreak (EAJ) esan du langileek ez dutela nahi gaiaz gehiago hitz egitea. Eurak konforme gelditu dira Aiara Batuzek emandako azalpenekin eta ez dute gaiari buelta gehiago ematerik nahi. Bestalde, esan du Udalaren irudia oso txarto gelditu dela, halako esanen ondorioz.

Iratxe andreak (AB) esan du hori idatzi zutenean ez zituztela langileak gogoan, ezpada Udalaren antolakuntza. Errendimenduaren jaitsiera ez da langileen ondorio, ezpada antolakuntza txarraren ondorio. Beraz, kritika ez zegokien eurei.

Jorrazeko beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburuak bilera bukatutzat eman du hogeiak eta hogeita hamar minutu zirenean, eta aztertutako guztia eta hartutako erabakiak jasota gera daitezen, akta hau egin dut eta neuk, idazkariak, egiaztatzen dut, Aiaran, bi mila eta hamalauko uztailaren hamazazpian.

OE  
ALKATE-UDALBURUA

IDAZKARIA

Izpta.: Josu Artetxe Arana

Izpta.: Naiara Lazpita Marcos.